

# Globokotxea



eskulana



## materiala

- Laukizuzen forma duen kartoi zati bat
- Artaziak
- 4 tapoi (handiak izan ezkerro hobeto)
- 2 zotz luze
- 3 lastotxo
- Zelo




## azalpena

• Laukizuzen forma duen kartoi zati bat moztuko dugu. Ondoren, artaziak KONTUZ erabiliz, plastikozko tapoien erdian zulo txiki bat egingo dugu.

• Lastotxoak, aurretik moztu dugun kartoizko angeluzuzenaren zabaleraren neurrira moztuko ditugu eta, zelo erabiliz, laukizuzenaren ertzetan itsatsi. zotzak lastotxoetatik sartu eta hauen ertzetan tapoia sartuko ditugu.

• Amaitzeko, puxika hartuko dugu eta honen ahotik lastotxoaren punta sartuko dugu. Zelo hartu eta ondo estutu hauen arteko lotura. Irudian agertzen den bezala itsatsiko dugu gure kotxera.

• Lastotxotik puxika puztu eta gure kotxea mugitzen hasiko da!



Bidali zuen argazki edo bideoak 688 725 738 zenbakira edo ludoteka@soraluze.eus helbidera